

Agapito Usabiaga Oiarbide

*Beasain, Gipuzkoa
(1930-2019)*

Aurkibidea

Biografia



Altamira auzoan jaioa, Lazkaoko muga. Baserritarra, auzoko eta baserriko bizimodua eta lana aipatu zituen, gehienbat, elkarriketan.

Zintak

BEA-025

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarriketatzaillea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-10-13

- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Baserriko bidea noiz berriztu zuten

- **Erref:** BEA-025/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Baserrirako bidea noiz berriztu zuten lehenengoz.

2. Altamira inguruko mendibideak eta gurdibideak

- **Erref:** BEA-025/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Lehenago, gurdibideak eta mendibideak ziren guztiak. Toponimia. Bideak nondik nora doaz. Antzinako elizbideen izatea.

Transkripzioa

- Eta hau inguru guztiau asko aldatuko zen, ez?
- Bai, asko.
- Zuen gazte-denporatik...
- Asko, asko, asko aldau koanto. Lehen dana... nee gazte-denbora jakiñen nik´e bai hemen inguru hook oain danak berde dare, baiño lehen danak sorook zien.
- Sorok?
- Danak sorook zien.
- Zer zan? Ze...?
- Garie, artoa... Garie ta artoa. Horik zien, artoa indabekin.
- Batera?
- Bai, artoa ta indabea batea eitten zien, batea eitten zien. Garie kendu ta geo [garie] kendu ta gero arbie eitten zan igual ganaduntzako. Hori hemen ta beheko baserritan hemen. Bueno, hemen dana, baserri guzittan.
- Eta basorik ez?
- Basoak guk gutxi, etxe honek baso gutxi. Baserri asko dao basoa daukenak, baiño baserri honek gutxi. Badaukeu pixkat, baiño gutxi.
- Gehiena soroa...
- Bai. [Lehen... zana oain belardik zerek].
- Eta orduan ganadua izaten zan gehio o...?
- Bai. Orduun izaten zan soroa laborea eitteko. Hobe bai garai hartan [gehixeo saiau balie] ganadukin gehio ateako zan.

- Bai, e?

- Laborekin baiño. Seguro, gaiñea. Seguro, gaiñea. Baiño orduun hue zan oseake lehengo ohitture hua dana soro ibiltzekoa. Ez zeon zaharrai esan besteik gaztek [beste harta...]. Buf!

- Eta egun guztia lanean...

- A! Bai, egun guztia lanen, [...] soroon. Soroon nik lan asko in det sorotan eta sorok eta nik eta familik. Danak. Oai ya gaztetzako ya [...] tratorek sartu hittuan ta soroa ´re gutxittu, e? gutxi... lehengo alden ´e gutxi zeatzen dek.

- Eta hau inguru guztiau ze auzo da? Altamira auzoa da edo...?

- Bai, Altamira. Auzo... Ez dek... Bueno, auzoa... auzoa, jakiñe, hemen beheran baserri ta... bi baser... hiru baserri ta hau bakarrik, lau. Lau. Altamira. Hoik Zunzunegi dittuk hiru diferente... izen diferentekin zerek beheran, baiño...

3. Auzoa erabat aldatu da: orain zelaia direnak lehen soroak ziren

- **Erref:** BEA-025/006
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Auzoan eman diren aldaketak. Gazte garaian, orain zelai direnak soro ezagutu zituen. Garia eta artoa ereiten ziren batez ere; baita indabak ere. Garia ebaki ondoren, arbia ereiten zen.

4. Ganadua baino, soroak ziren nagusi baserrian

- **Erref:** BEA-025/008
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Abere gutxi izaten zituzten bera umea zela. Lur gehiena soroa izaten zen. Abere gehiago izan balituzte, bizimodua errazago ateratzeko aukera izango lukete. Ohitura zaharrari eutsi beharra. Egun guztia soroan ematen zuten. Gauzak aldatuz doaz.

5. Altamira edo Igartza auzoa eta Igartzako errota

- **Erref:** BEA-025/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Altamira auzoa. Lehenago Igartza auzoa esaten zioten, baina azken aldian beraien baserri inguruan dauden etxe multzoari Altamira auzoa izendatzen hasiak dira. Igartza ingurua; desagertutako baserriak (Usategi; e.a). Igartza errota. Igartzako errotara eta Lazkaora ere eramaten zuten garia.

6. Beasainerako joera

- **Erref:** BEA-025/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Beraien baserriak Beasain, Lazkao eta Olaberriako eremuetan ditu lurrak. Baina beti Beasainera joateko joera izan dute. Esne-saltzera Beasainera joaten ziren.

Transkripzioa

- Zuek erdi-erdian zaudete, ez? Beasain, Lazkao, Olaberria...
- [Olaberria]. Erdi-erdin garek. Bai, guk ter(re)nok, ter(re)nok Beasaiñen, Lazkaon ta Olaberrin hirutan zeuzkeau, [...].
- Bai, e?
- Bai.
- Ta nora zan zuen irteera nora zan?
- A...
- Beasaiñera beti?
- Bai, bai, hori bai.
- Beti?
- Hori bai. Irteerea Beasaiña.
- Bai, gauzak erostera, saltzera...?
- Saltzea, esnea saltzen zan lehen kalea. Urte askotan saldu diau esnea kalen. Ta hori dana Beasaiña. Hori bai.
- Eta esnea saltzera kalera?
- Kalera, etxetaa.
- Etxerik etxe?
- Etxerik etxe urte askotan ibili gaittuk gu, urte askotan ibili gaittuk.

7. Beasainera esnea saltzera etxerik etxe

- **Erref:** BEA-025/011
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Beasainera esne-saltzen etxerik etxe. Bidea egin bitartean astoarekin joaten

ziren. Herrian ez zegoen astoak lotzeko tokirik, baina plaza inguruan uzten zituzten. Lazkaotik baserritar asko etortzen ziren Beasainera. Esnearen prezioa. Esnea egunero-egunero banatu behar izaten zuten; jairik ez. Baserriko bizimodua asko aldatu da azken aldian.

8. Beasainera esnea saltzera etxerik etxe (II)

- **Erref:** BEA-025/012
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gehienbat esnea saltzera jaisten ziren herrira. Behiak izaten zituzten; ardirik ez. Soroa lantzen zutenez, behiak ikuiluan izaten zituzten. Soroan lan handia izaten zuten eta erreminta gutxi.</p>

9. Baserrian ume-umetatik hasten zen lanean

- **Erref:** BEA-025/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ume-umetatik baserrian lanean. Itulan egitea, aspergarria. Neska eta mutilen arteko desberdintasunak.

10. Abereak zaintzeko lanak: jana, esnea, simaurra...

- **Erref:** BEA-025/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Abereen inguruan egin beharreko lanak. Segarekin belarra ebagi, baserrira eraman, behiak jetzi, azpiak egin, simaurra atera, etab. Azpiak garo eta orbelarekin egiten zituzten. Garoa eta orbela metatu egiten zituzten.</p>

11. Garoa biltzea ere lan handia izaten zen

- **Erref:** BEA-025/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Garotara nora joaten ziren. Lan handia izaten zen garoa eta orbela biltzea. Honen inguruko azalpenak. Beasainmendi, herri basoak zeuden.</p>

12. Jai egunetan musikara, Beasaina edo Abarizketa auzora

- **Erref:** BEA-025/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Jai egunetan zer egiten zuten. Arratsaldean musika egoten zen herrian eta bertara joateko ohitura izaten zuten. Negu aldean giro gehiago egoten zen uda partean baino. Neskatan egiteko aukera ona izaten zen. Mendi-erromeriak; Abarizketan soinua egoten zen. Kaletar eta baserritarren arteko harremana.</p>

13. Ehiza eta galeperrak

- **Erref:** BEA-025/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ehiza kontuak asko aldatu dira. Ehiztariaren izatea. Garai batean galeperrak aske ibiltzen ziren. Ehiza kontuak.

14. Urtebetetzeak ospatzeko ohiturak

- **Erref:** BEA-025/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Urtebetetzeak nola ospatzen zituzten; opariak.</p>

15. Gabonetako ospakizunak eta Erregetako opariak

- **Erref:** BEA-025/022
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:35:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gabonetan, Erregenetan, opariak izaten zituzten. Jaieguna izaten zen, eta lan gutxiago egin behar izaten zen baserrian. Jateko berezia izaten zuten egun horretan. Gabonetan, Ordizian feria handia egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Eta lehen gabonetan eta eguberrian izaten zen horrelako erregalorik? Zuen gazte-denboran...?
- Erregenetan. Erregenetan izaten zan. Nik ezautu diat hemen beti. Ezautu diat erregenetan.
- Eta nolakoak ziren erregenetako jaiak eta?
- Orduun, esaten dizut, ba, orduun´e zapatilla o zapatan batzuk falta baldin bazien eo holoko zea batzuk. Ez hola jostaillu eta holakook, e? Ez, beharrekook, norbeak behar zittun holako zea batzuk.
- Baiña lehen ere izaten zan oain bezela, ba, erregeak etorri behar dirala eta umeak ohera...
- Ohia sartu ta hoixe.
- Eta sinistuta?
- Seko sinistuta? Hoixe bai, sinistuta. Oaingok baiño denboa gehiotan. Ordun inuxentegoak giñuztean orduun; oain baiño inuxentegoak giñuztean. [...] Oain lehen ikasten dittuk gauzak.
- Eta goizean jaiki...
- A, bai. Guk hemen... Gu hemen hamar senide hazi gaittuk eta danantzako zerbait. Festa izaten huan ordun´e, hoi dudaik be.
- Bai, ilusioa...
- Ilusiokin.
- Oain baiño gehio...
- Hoi seguru, hoi seguru.
- Erregenetan izaten zan?
- Erregenetan izaten zan. Oain eguarritan ta urte zaharretan ta toki askotan itten [zan]. Ta hori oain´e guk etxe hontan, oain´e, erregetako ohitturea lehengoai eutsi eitten zioau. Oain illobai ta hoiei danai zeoze.
- Eta jairen bat egiten zan erregenetan? Erregaloak-eta jaso, baiña bazkarin bat o kantun bat o...?
- Bai, jai izeten hoan, ez hoan lanik eitten. Oain baiño gehio errespetzen zan, gaiña, orduun. Jakiña, ganadu-lana derrior ein beharra zenduken, baiño hua, normalen, jaieako, janak, behi-janak eta horik bezperatik gehientxonak behintzat einda, jaie beti gertatzen hoan arintxoogo, lanak-eta arintxoogo.
- Eta kantuan edo...?
- Ez, ez det izan nik kantuako zeaik ez det izan. Ta gue etxeen´e ez dek, ez dek...
- Eta erregenetan bazkaria... edo?
- Bai, bazkari espezialtxoa beti. Hori bai.
- Eta ze izaten zan edo...?
- Izaten huan bai gabonetan, bai urte zaharretan ta bai erregenetan, hoitan beti-beti zeoze he(g)azti o zeoze behintzat.
- Eta zer gehio? Beste zerbait jaten zan?
- Ba! Jan faltaik ez huan izaten. Konpota. Hoi egoarritako pestatan beti,

hiruetan: gabonetan, urte berrittan ta erregenetan. Konpota beti eitten huan gue etxen.

- Ta intxaur-saltsa ta...?

- Ez diat, ez... Ez dek izan hemen ohitturaik. Oain, oain hemen gue gazteek eta hook sozidadetaa junda ta esaten die [...]. Neonek ez diat jan, gaiñea, ez diat oandio jan. Ez.

- Orduan, konpota [...]....?

- Bai, bai, bai, bai, gue etxen´e... Oain´e gustoa jaten diat nik jarri ezkeo.

- Eta gero hegaztin bat?

- Bai, hegaztie.

- Kapoia o oillaskoa...?

- Oillaskoa, oillarra, gabonetako oillarra. Gue amak ohitture haundie zian. Urte askotan jarriko zon, gaiñea, oillarra hil ta hua menestran.

- [...]. Eta bakaillorik o izaten zan? Arraiñen bat?

- Bai, horiik izaten hittuan perie hola fuerte xamarra... oain´e hala izeten dek ta Ordizin izaten zan ordun ta Ordiziaa zan joera haundie. Ta, ordun, hautza jun ezkeo, ordun bakaillao, arraie ta antxoa o... hautza jun ezkeo beti.

- Eta, bestela, normalen, ze izaten zan?

- Ba, potajea.

- Potajea beti?

- Potajea. Guk beti. Ba(b)arruna beti. Urten aurreneti azkenea, oain ez diat jaten, oain ez diat...

- Orduan, asko jasotzen zan orduan?

- Bai, asko. Saillek eitten zien! Sail haundiik itten baitzien! Bai, bai, ordun potajea zan ta potajea gutxigo o allatzen ez baldin bazan, orduun lenteja o hola; garbantzue jaietan ta holako toki batzutan, zea espeziala baldin bazan, ordun garbantzuk.

- Garbantzurik-eta ez zan izango?

- Hemen ez. Ez, ez zan.

- Baiña ezautu bai, beti ezautu dezu?

- Jateko? Jateko bai.

- Eta lenteja?

- Lentejak´e bai. Horik nee akordu guzi-guzin beti izan dittuk. Beti izan die. Nun hartzen zien ta ez zien ez dauket ideaik!

- Ta arroza?

- Arroza´re bai beti izan da. Beti, beti.

16. Garai bateko bazkari eta janariak baserrian

- **Erref:** BEA-025/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Elikadura baserrian; eman diren aldaketak.

17. Gerra zibilean, baserritik alde egin behar

- **Erref:** BEA-025/025
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra Zibila Beasainen. Herriko plazan kanoia jarri zuten beraien baserri ingurura begira. Baserritik ihes egin behar izan zuten.

18. Gerran frankisten tropak sartu ziren eguna

- **Erref:** BEA-025/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaiko kontuak. Tropa sartu zireneko eguna.

19. Beasaingo euskara eta inguruko herrietakoa: Olaberri, Lazkao, Ordizia⁸⁹

- **Erref:** BEA-025/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko herrietako euskara. Beasain, Olabarri eta Lazkao berdintsu egiten dute; Idiazabal eta Seguran desberdin egiten dute. Ordizia eta Itsasondokoek ere Beasaingoan antzera. Legorretako euskara ere oso antzerakoa. Lehenago, Tolosako euskara ederrena zela esaten zen.

Transkripzioa

- Zuek hemen inguruan zaudetela, Lazkao, Beasain, Olaberria... hemen inguruko euskara alde batetik bestera igartzen dezue zuek alderik? Lazkaoko o Beasaingoa o...?
- Ez, Olaberri ta Beasain ta Lazkao ta hor ez.
- Denak berdin?
- Berdintsue. Porejenplo, abitzen baldin bazea behin Idiazabal eta Seguraa bai. Ordun bai. Ta Zegama aldea oandio gehio.
- Eta zein da aldea? Ze aldatzen da?
- Hemen garbigo hitz eitten dek. Han bestelako holako... ez dakit nola esan 'e.
- Beste azentu bat o...?
- Bai, beste zea bat ematen zaiok.
- Eta hemen inguruan ez dao bate alderik?
- Ez, ez dao aldeik. Hemen ez. Hemen 'e Beasain [...] auzo hotan ta hortan ez dao, ez dao.
- [Beasainmendin] o...?
- Ez, ez, ez. Ordizi ta Itsasondo ta hotan, hotan ez dao bereizteik hemen euskeraik. Dana igualtsu. Bai, igualtsu.
- Eta ez dezu Lazkaoko bat entzun ta "A! Hori Lazkaokoa"...

- Ez, ez, ez, ez. Hori ez.

- Eta Zaldibikoa?

- Ezta hortaiño... Zeoze igual, baiño ezta oaindio hortaiño.

- Hemen non hasten da aldatzen? Behin Legorreta inguruan?

- Legorretakoa ´re hemengo moukoa dek. Ta Alegin... Alegin egongo dittuk hola pixkat gehixio. Behin Tolosaa ezkeo pixkat gehixeo aldatzen dek.

Hitz... Ze esango nizuke hitz, hola, hitz eitteko modu gozogoa o... ez zekiat ze esan, nola esan. Lehen-lehen esaten zien euskeraik ederrena Tolosa alden zala. Hala esaten zien lehen. Eibar aldea, berriz, zuetaa juun ezker, berriz, han erdi erderaz.

- Hori hemen esaten zan Tolosa ingurukoa bertakoa baiño hobe zala?

- Hizkuntza garbigoa, gozogoa o esaten zien. Nik hemen gue etxen askotan entzun izan nian hori. Hori bai.

- Ta, bestela, esan dezu, beste alderantz Idiazabal eta Segura inguruan ya aldatzen hasten dala?

- Aldatu, bai. Seguran bastante aldatzen dek hizkuntzea.

- Eta Ormaiztegin?

- Ba! Ormaiztegin hemengo moukoa. Normalen bai, Ormaizteittik Gabiri ta hor ya gehio aldatzen dek hemen [...]. Bai, gehio aldatzen dek.

- Eta Ataun?

- Ba! Ataun ´e gutxi gorabehera... pixkat igual nahastuko dek, baiño hemengo modu... zea dek Ataunen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com